

# **BERTSOLARIEN PENTSAMENTU-RITMOA (II ZATIA)**

Manuel Lekuona

Gure Aldizkari RIEV'en leengo (tomo XXVIII - año 1983) zenbakia irakurri nuan bezain laister, konturatu nintzan, an argitaldutako neure lanak utsune bat ba zuala; utsune naiko garrantzitsua; lanaren bukaeran; eta, ain zuzen, bertsoaren "bukaerari" dagokiona.

Ez nuan okerrik esan. Utsune bat egin baizik. Eta ezta utsune berebete bat ere; naikoa ez esana baizik.

Zer utzi nuan esan gabe?

Ea alkarrantzen degun.

Nere lanean, bertsolariaren pentsamenari buruz lau eredu aukeratu nituan: "Kopla zaarrak", "Iztueta", "Xenpelar" eta "Zapirain". Eta zapirain aipatzean, aren bertsoaren pentsamen-ibilpera azkarra ta urduria aipatzen nuan. Eta ortaz gañera, aipatzen nuan, baita, beste gauza bat ere, sobra garrantziduna: bertsoaren bukaerako ostikada: "Ostikada" bai; bañan Retoriko latinoak izen itsusiagoz "benenoa" esaten zutena: "In cauda, venenum" = "Isatsean, edena, benenoa"... Estetika politagoan, benenoaren ordezkari ostikada esango degu.

Ez bait da, ordea, ostikadaren izaeragatik; ostikadaren prozesu jebetikoagatik baizik prozesu ori; oso jakingarria da, izan ere.

Ikustagun.

Pello Errota'ren bertso batekin argituko degu gure gauza. Onela dio bertsoak:

Buenas dias, Txanbergo Jauna,  
erantzirikan txapela.  
Gaurko onetan ez bait det uste  
izango dedan kartzela.  
Aspalditxoan urrea baño  
geiago degu papela.  
Ta ikusi dezan, ar beza, Jauna,  
Komunioko Txartela.

Bertso onek ba du bere historia.

Bigarren Karlistatea, bukatu-berri zan. (1876-inguru).

Garai artan Asteasu'n Pello Errota bertsolaria bizi zanbere errotan.

Errotara, irin-billa, etortzen ziran erriko "bezeroez" gañera, ba zituan Pello'k inguruko errietan beste bezero batzuek, bear zuten iriña etxera erro-tariak eramaten zien oietakoak. Aya'ko errian, adibidez.

Gerratea bukatu-berri bezela, zenbait erritan oraindik ere Guardia Zibillak, errira zetorren guztiari, pasaportea eskatzeko oitura zuten. Aya'n adibidez.

Bein batean Aya'ko Sarreran erriko Guardiak gure Pello'ri:

—Alto! El papel...

Galdera onentzako erantzuna izan zan Pello'ren bertsoa:

Buenas dias, Txanbergo Jauna...

## ATZEKOZ-AURRERA

Bertso biribilla ta tipikoa, Pello'ren bertsoa.

—Nolakoa izan zan, ordea, bitarte artan, Pello'ren barrunbean bertsoaren pentsamen-ritmoa? nundik nora ibilli zan pentsamen ori?

—Ba dirudi eta edozeñek esango luke, Pello'k bere bertso-erantzunaren asiera —asiera— pentsatu zuala lenengo, eta bukaera, azken —azken—. Bañan "Ez, Jauna"! Ain zuzen asiera ez baño, bukaera pentsatu zuan lenengo, eta gero gañerakoa. (Gero ikusiko degu gauza zeatz/zeatz). Lenengo pentsatu zuana, bukaerako "Komuniyoko Txartela" izan zan. Dana, itxuraren kontra.

Olakoxea da, izan ere, besteak beste, gure bertsolarien pentsamen-ritmoa, puntu onetan. Itxuraren kontrakoa...

## IZEN ETA EXPLIKAMEN

Itxuraren kontrako pentsamen-ritmo onek ba du euskeraz bere izen eta bere explikamen. "Atzekoz-aurre" esaten zaio, edo, berdintsu dana, "Azpikoz-gain".

Eta ari ontan bai bait da antziñako Filosofia Eskolastika zaarrean esaera bat onela diona: *Causa finalis est primum in conceptione, ultimum in exequitione*. Egite guztietan "elburua dala, alegia, lenengo pensatzen dana, bañan azken betetzen, osatzen dana".

Ala berean gure Folklorean, ere ba da beste esaera bat, gauza onekin zer-ikusi zerbait duana: Aurreku-dantzari arau praktiko dana: "Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu"; bañan funtsean gure kasuan kontrara bait da gauza; aurreak ez baño atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu;

bertsoetan atzeak erakusten du bertsoaren aurreak nola izan bear duan: atzea da neurri bertsoaren gorputzeko “puntuak” eratzean.

Eta gertatu ere, ala gertatu bait zan Pello Errota'ren kasuan.

Pello'k bertsoaren “azkena” asmatu du aurren; eta gero, azken orren “soñudun” iru itz —iru puntu— asmatu ditu, soñu berean bertsoa bukatuko dutenak. “Txartela” bait dio bertsoaren bukaerak, iru itz —ela-ela, dunak sortu bear zituan, eta sortu ere ditu: *ixtanpantean sortu ere: txapela, kartzela eta papela...*

Olakoxea da gure bertsoaren pentsamen-ritmoa: ibilli ori egin du gure Pello'ren pentsamenak trantze ortan.

Ondo begiratzukero, gauza bera egiten dute bertsolari guztiak Sariketetan “Puntu-jartze” esaten zaion ariketaetan, “Puntu-jartzalleak”, bukaera bera duten lau itz eman, eta berak bertsoa osotzen dutenean.

Pentsamen-ritmo benetan interesgarria eta arrigarria, gure Pello'k ain biribil bukatu zuana.

Entzun dezagun berriro:

Buenas dias, Txanbergo Jauna,  
erantzirikan txapela.  
Oraingo ontan ez bait det uste  
izango dedan kartzela.  
Aspalditxoan urrea baño  
geiago degu papela,  
ta ikusi dezan, ar beza, Jauna  
Komunioko txartela.

Pentsamen-ritmo dotorea ez bada, ba, gure Pello Errotarena!

## BERTSOAREN GORPUTZA

Dotoretasun orren ezagugarri, ikus dezagun orain, nola montatzen duan Pello'k bertsoaren gorputza.

Lenengo-lenengo Txanbergoa aipatzen digu. Txanbergoa, Guardia Zibilla da. Eta buruan daraman kapelutik datorkio bere izena, Guardiaren kapeluak, denbora bateko “Txanbergo” zeritzan kapeluaren antza bait du.

Bigarren, bere buruan daraman txapela kentzea aipatu bear du, kortesiaz.

Iugarren, kartzela aipatzen du, eta kartzela aipatzeko egokitasuna, gauza argia zan urte aietan: Guardiak, baserritarrai bildurra sartzeko, “kartzela” itzetik-ortzera erabiltzen zuten itza zan. Orregatik aipatzen du Pello'k kartzela bere egun artako toparizuan.

Oso jakingarria da baita, orren ondoren datorren aipamena ere; urrea baño papela, geiago erabiltzeko oitura zabaltzen ari bait zan baztarretan Espainiaren Ekonomia argal zebillelako garai artan. Orregatik, Gobernuaren aginduz, Banko de España, urrea erretiratzen eta papela banatzen asia zan. Ori esan nai du Pello'ren beste aipamen orrek.

Gañerakoan Komunioko Txartelaren kontua, Pello'ren umore onaren señale bat da. Orain "txiste" esango gendukeana. Txiste biribilla. Gure kasurako, lenengo pentsatua; bañan azken kantatua: *Primum in conceptione; ultimum in executione*, atzekoz-aurre jator-jator batean; dena bertsolarien pentsamen-ritmo jator batean...

## BERTSOAREN BUKAERAN OSTIKADA

Atzekoz-aurreko Ritmo onek Bertsoari "Pentsamen-ritmo" berezi bat ematen dio. Latinoak *in cauda venenum* esaten ziotena; "Isatzean bene-noa" alegia; euskeraz gozoago guk "bukaeran ostikada" esango gendueana. Bertsoaren "muiña" dan gauza bertsoaren azkenerako uztea, alegia. Asiera orrek bertsoaren bukaerari aparteko indar ta grazia ematen bait dio. Pentsamenaren Ritmoan izaera aparteko bat. Izaera karakteristiko bat. Bertsoa Olerkiatik bereizten duana. Bertsolari diran bertsolari danak ondotoxo kontserbatzen dutena. Bañan bertsolari ez danak errex aztutzen duana. Ontan igertzen bait diogu bertsolari jatorrari. Bertsoaren bukaerako ostikadatxoan.

Olerkariak ez du jarraitzen kanon au. Aldian bein, bai, egingo du ola; bañan ez kanon bezela, nai-gabe bezela baizik. Bertsolariak, ordea, obligaziozko kanon bat bezela.

Begira eredu batzuek.

Ereduak nun-nai arki ditezke. Guk bizpairu aukeratuko ditugu.

Zapirain'ena:

Nere sentimentuak  
 bear ditut esan;  
 suerte txarrerako  
 mundu ontan izan.  
 Gripek arrapatuta  
 emaztia il zan;  
 errezatutzen diyot  
 al dedana Elizan  
 bederatzi umekin  
 alargundu nintzan.

Bilintx'ena:

Nere ditxa guziyak  
ba dute ajia;  
nunbait naiz Jaungoikuak  
aztutzat lajia;  
gosiak egin nuen  
ango biajia;  
kulpa duenarentzat  
daukat korajia;  
apaiz batek jan zuan  
nere potajia.

Xenpelar'ena:

Burruka ari dala  
juan zaizka adarrak,  
ezin sujetaturik  
bere indarrak,  
talentu onak dauzka  
gure betroi xarrak;  
lurrera botatzen du  
euli baten kargak.  
Jendiaren farrak  
ez dirade txarrak;  
ganadu elbarrak  
juntura igarrak;  
burruntziya dirudi  
orren bizkarrak.